

Minutu pare baten buruan inguratua zen industrialdea eta aldiriko autobia bereizten zituen hesi metalikora. Bi eskuak eta aurpegia sarearen hutsuneetan, bi norabideetako trafiko biziari beha egon zen. Errepidearen beste aldean ezponda pikoak beheko ibairaino alderatze-ko edozein ahalegin zapuzten zuen.

Ibai zulotik goratzen ziren makalen hosto arteak hiriko auzo berrien puska koloretsuak irazten zituen. Ez zegoen, aldiz, hirigunea eta muinoko alde zaharra ikustea eragozten zuen ezer. Gandu zuri mehearen atzean, urrun baina gailen, dozena erdi bat elizaren dorre ilunak zeuden aldatsean eta hegian.

Ramirok burua hesitik aldendu zuen oinezkoentzako gainerako pasabidea bilatzeko. Ezkerrean zegoen, eta bostehunen bat metro izanen zirela taxutu zuen. Pabiloien atzeko aldeak eta hesiak mugatzen zuten eremutik jarraituz hurbildu zen, zabor edukiontzien eta makina hori isilen ondortik. Hormetako pintaketak argi irakur zitezkeen artean. Grebarako deiak ziren gehienak, baina pinturaren margulari erreparatuz gero agerikoa zen urteak zituztela.

Pasabideraino iritsitakoan hirian sartu arteko tartea neurtzen saiatu zen. Metalezko eskailera dardaratiak igo eta pasabide gainerik begietsi zuen industrialdea.

Hegoaldera zihoazen errepedeetatik dirdai motelak igortzen zituzten autoek. Aparte, ordeka horituaren erdian, garabi oiha bakan bat nabarmentzen zen.

Ramirok eskailerak jaitsi zituen eta hirirako pasabidea atzean urzita, industrialdeko kale hutsetara itzuli zen.

Lehenengo kale gurutzean kartel ugari topatu zuen; lau norabideetara eginak zeuden eta guztiek inguruko indutriak iragartzen zituzten. Batek berak ere ez non zegoen irteera.

Loaren putzutik irtetean ilun betea topatu zuen. Ramiro ahoz gora zegoen etzanda, eskuak lo zakutik kanpora. Segundo gutxi behar izan zituen non zegoen jakiteko, eta zainak esaten bazion ere zergatikoa inguruan zeukala, ezinezkoa zitzaion zerk itzarria zuen asmatzea.

Nekearen eta logalearen astunak pentsarazi zion denbora gutxi emana zuela lotan. Etxabearen hormarik ez zegoela baliatuz, burua apur bat jaso zuen sabaia itzultzen zion beltza sailhestu eta argi aztarnaren bat bilatzeko. Bazekien ilargia izan balitz izpiren bat ekarriko ziola bera zegoen tokiraino; ez zuen lehenbizikoan etsi, ordea, eta konbentziturik zerua ez zegoela erabat estalita, burua pixka bat behartuz urratu zuri batzuk aurkitu zituen ilunpean.

Atzera zoruan bermatzean ziztada labor bat sentitu zuen bizkarrean. Harritu egin zen, etzan aurretik haztamuka ibilia baitzen zoruan adreilu hondarrak, iltzeak eta bestelakoak baztertzen, eta itxura batean erabat garbi zegoen hartarako aukeratua zuen tokia. Zoru koskez